

OINARRI ARAUTZAILEAK

VIII. PINTXO LEHIAKETA. TRAPAGARAN 2026

LEHENENGOA.- Xedea

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Merkataritza Sailak eta Baturikak –Trapagarango Merkatarari eta Ostalarien Elkartek, Meatzaldeko Behargintzarekin lankidetzan, oinarri hauen bidez, PINTXO LEHIAKETA VIII. EDIZIOaren deialdia egiten du, Valle de Trápaga-Trapagaran udalerriko ostalaritza sektorea dinamizatu eta sustatzeko.

2026ko apirilaren 17tik apirilaren 26ra dastatu ahal izango dira pintxoak, ostiraletik igandera, 2 asteburutan zehar, herriko ostalaritza establezimenduetan, ordutegi hauetan:

- Ostiraletan, apirilak 17 eta 24: 19:30etik 22:00etara.
- Larunbatetan, apirilak 18 eta 25: 12:30etik 15:30era eta 19:30etik 22:00etara.
- Igandetan, apirilak 19 eta 26: 12:30etik 15:30era.

BIGARRENA.- Establezimendu parte-hartzaileak

Parte hartzea librea da eta inskripzioak ez du sortzen ezelako gasturik.

Establezimendu parte-hartzaile bakoitzak sari bat bakarrik eskuratu ahal izango du.

Barra daukan edozein ostalaritza establezimenduk har dezake parte, BATURIK-Trapagarango merkataritza eta ostalaritza elkarteko bazkide izan ala ez, dena dela daukan sailkapena edota maila (taberna, txiriboga, ostatu, kafetegi, jatetxe, etab.) eta horretarako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ostalaritza establezimendua Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrian egon beharko da kokatuta.
- b) Establezimenduak eratuta eta jardunean egon beharko dira oinarri hauek indarrean dauden artean.
- c) Taberna edo jatetxea izango da jarduera nagusia

HIRUGARRENA.- Inskripzioa

Parte hartu nahi duten establezimenduek, oinarri hauen edukia onartu eta betetzeko konpromisoa hartu behar dute, eta inskripzio-fitxa bete eta entregatu behar dute ezarritako epeen barruan. Interesaturiko establezimenduek Udalaren eta Baturikaren webguneetan on-line eskuragarri dauden inprimaki bat betez egingo dute inskripzioa, 2026ko martxoaren 23ko 9:00etatik hasi eta 2026ko martxoaren 27ko 13:00ak arte.

Oinarri hauek ez baditu betetzen, establezimendu parte-hartzailea deskalifikatuta gera daiteke 2026ko Trapagarango VIII. PINTXO LEHIAKETATIK.

Informazio gehiago:

- Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzia
Nafarroa k., 19
Tel. 94.486.31.96
- www.trapagaran.net
- www.baturiktrapagaran.com

LAUGARRENA.- Epaimahai teknikoa

Epaimahai teknikoak lehiaketaren LEHEN SARIA emango du. Bere osaketa 2026ko apirilaren 14an emango da jakitera eta gastronomia eta jatetxe sektoreko profesional kopuru bakoiti batek osatuko du, eta irizpen hauen arabera baloratuko ditu pintxoak:

- Aurkezpena: pintxoaren muntaketa, koloreak, ikusgarritasuna eta jartzeko modua.
- Originaltasuna eta berrikuntza: proposamenaren berritasuna, asmamena eta originaltasuna.
- Zaporeen harmonia: gustua, zaporeondokoa, kontratea, ñabardurak...
- Prestaketa eta tenperatura: teknika, produktua, osagaien arteko oreka...

Epaimahaiko kideek 2026ko apirilaren 15ean dastatu eta kalifikatuko dituzte leihaketara aurkeztutako pintxoak, data horretan aurkeztu behar baitituzte establezimendu parte-hartzaileek euren pintxoak, haien izenak aipatuz.

BOSGARRENA.- Epaimahai herrikoia

Epaimahai herrikoia izango da lehiaketako BIGARREN SARIA emango duena eta haren kide izango dira pintxoak dastatu eta botoa eman nahi duten adin nagusiko bezero guztiak. Horretarako, Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak herri guztitik banatuko dituen pintxo-ibilbideen inprimakiak erabili beharko dituzte.

Pintxo-ibilbideen inprimakiak parte hartzen duten tabernetan eta herriko gunen desberdinetan eskuratu ahal izango dira. Lehiaketan parte hartzen duten ostalaritza establezimenduetara eraman beharko da inprimaki hori, pintxoa dastatu ondoren zigilatzeke. Inprimakiak, gutxienez, erakunde antolatzaileak zehaztuko duen zigilu-kopurua eduki beharko du. Establezimendu parte-hartzaileetatik igaro ondoren, inprimakiak hautetsontzietan sar daitezke, hautatutako pintxoaren izena jarrita. Hautetsontziak parte hartzen duten tabernetan, kiroldegian eta Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian egongo dira eta haietatik aterako da epaimahai herrikoia sariak. Hautetsontziak balio ahal izateko zigilatuta egon beharko dira eta egoera onean.

Bozketa hori 2026ko apirilaren 17tik 27ra arte egin daiteke.

Zenbait sari zozketatuko dira parte hartzen duten bezero guztien artean. Izan ere, ongi zigilatu eta betetako inprimakien artean zozketa bat egingo da bezero irabazleak nortzuk diren jakiteko. Zozketa hori 2026ko apirilaren 28an egingo da, goizeko 11:00etan, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta erakunde hori izango da irabazleei berria emango diena.

Bezero parte-hartzaile bakoitzak sari bakar bat eskuratu ahal izango du.

SEIGARRENA.- Pintxoaren aurkezpena

Lehiaketan parte hartzen duten establezimenduek 2026ko apirilaren 15ean aurkeztu beharko dute bere pintxoa, izena adieraziz, efektura ohartaraziko den lekuan, Epaimahai teknikoak dastatu eta kalifikatzeko.

Aurkeztutako pintxoa dastatzeko prest egon beharko da eta jateko baldintza ezin hobeetan. Establezimendu parte hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du eta eskuragarri egon beharko da lehiaketak dirauen data eta ordutegietan. Ezin izango da aldaketarik egin pintxoan, beti erabiliko dira osagai eta aurkezpen berak eta bezeroentzako eskuragarri egongo da lehiaketak dirauen egun guztietan, **gutxienez**:

- Ostiraletan, apirilak 17 eta 24: 19:30etik 22:00etara.
- Larunbatetan, apirilak 18 eta 25: 12:30etik 15:30era eta 19:30etik 22:00etara.
- Igandetan, apirilak 19 eta 26: 12:30etik 15:30era.

Pintxoa ez balego bezeroentzat eskuragarri ere, establezimenduak inprimakia zigilatzeke betebeharra izango du. Establezimendu parte hartzaileak zigilu identifikatzaile bat eduki beharko du, sinadurak ez du balioko.

Pintxo guztiak egongo dira identifikatuta lehiaketak dirauen artean, haren bereizgarri batekin, zeinean osagaiak agertuko diren. Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak emango ditu doan bereizgarri horiek, pintxo-ibilbidearen inprimakiak, hautestontziak eta publizitate material guztia.

ZAZPIGARRENA.- Prezioa

Lehiaketako pintxo guztiek 2 euroko gehieneko prezioa izango dute.

Pintxoaren prezioa kontsumizio bati lotuta egongo da.

ZORTZIGARRENA.- Pintxo-lehiaketako sariak

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak eta Baturik- Trapagarango Merkataritza eta Ostalari Elkarrekin, honako sari hauek banatuko dituzte establezimendu parte-hartzaileen artean:

- **LEHENENGO SARIA (EPAIMAHAI TEKNIKOAREN SARIA):** diploma bat, trofeo bat eta Udalak emandako 300 euro eskudirutan.
- **BIGARREN SARIA (EPAIMAHAI HERRIKOAREN SARIA):** diploma bat, trofeo bat eta Udalak emandako 150 euro eskudirutan.

Bi irabazleentzat: (1) ENTRAPAGARAN.COM egunkarian argitaratuko den erreportaje bat, orrialde osokoa, lehenengo eta bigarren sarituek partekatuko dutena, 800 eurotan baloratua eta (2) pintxo irabazleak gomendatzeko Radio 7n egingo den publizitate-iragarki kanpaina bat, 360 eurotan baloratua, erakunde horrek eskainia.

Sari guztiak daramate BEZa barne.

Establezimendu irabazleek konpromisoa hartzen dute hilabetean (larunbat eta igandeetan), lehiaketa amaitzen denetik, pintxoak eskuragarri edukitzeko.

2026ko apirilaren 29an emango da jakitera zeintzuk izan diren Pintxo Lehiaketako establezimendu irabazleak Udalaren webgunean (www.trapagaran.net) eta Baturik-en webgunean (www.baturiktrapagaran.com).

BEDERATZIGARRENA.- Herritarren parte hartzeagatiko sariak

Zenbait sari zozketatuko dira parte hartzen duten bezero guztien artean. Izan ere, ongi zigilatu eta betetako inprimakien artean zozketa bat egingo da bezero irabazleak nortzuk diren jakiteko. Zozketa hori 2026ko apirilaren 28an egingo da, goizeko 11:00etan, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta erakunde hori izango da irabazleei berria emango diena.

Hauek izango dira sariak:

- 100 euro eskudirutan, Udalak eskainia.
- 100 euroko txartel bat, Baturik-ek eskainia, erosketak egiteko herriko establezimenduetan.
- Marqués de Vitoria ardo Verdejoaren sei (6) estutxe, irabazle bakoitzarentzako bana (1), Bersatxoa komertzialak eskainia, guztira 60 euroko balioa dutenak.
- Bost (5) bisita-sorta, bat (1) irabazle bakoitzeko, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak (Meatzaldea) dohaintzan emandakoak, bakoitza 30 €-tan baloratuta.
- Hiru produktuko kosmetika natural-ekologikoko set bat eta nezeserra, EDDERk emandakoa, 65 €-tan balioetsia.
- Osteopatia saio bat (eskuzko tratamendua gaitz gehientzat), Aritz Fernández Osteopatiak emana, 45 €-tan baloratua.
- 2 laguntzako afaria (Hanburgesa, Ogitartekoa edo Sandwicha + Sarrerakoa + Edariak), Boulevard Kafe Antzokiak emandakoa, 40 €-koa.
- Hortz ureztatzaile ekologiko bat, Zaballa Hortz Klinikak emandakoa, 35 €-tan baloratua.
- Lurrunetan ilea hidratatzeko tratamendu bat, MAXI'M PELUQUEROSek emandako orrazkera profesionalarekin, 40 €-tan baloratua.
- Kibor Electrodomésticos enpresak emandako sukaldeko baskula eta tenporizadorea, 25 €-koa.
- Trapagarango Merkataritzako bost (5) merchandising pack, irabazle bakoitzeko bat (1), Baturik etxeak emandakoak, bakoitza 20 €-tan baloratuta.

OHARRA: Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, beste erakunde batzuek ematen dituzten sariak azken orduan aldatu edo bertan behera utzi ahal izango dira, eta horren berri izan bezain laster jakinaraziko da.

Udalak emandako goian adierazitako sariei dagokienez (zortzigarren eta bederatzigarren atalak), sarien banaketa oinarri hauetan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera arautuko

da, bertan aurreikusten ez denerako. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Udaleko Tokiko Merkataritza Arloa izango da. Udalak emandako sariak, 550 €-ko balioa izango dutenak, 2026rako luzatutako aurrekontuetan sartutako 4310-47000 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio. Udalak emandako sari horiek egindako gastua justifikatuz ordainduko dira.

Udalak emandako sari horiek saridunak Udaleko Enplegu eta Toki Garapenerako Agentzian horretarako ematen duen banku-kontuan ordainduko dira. Halaber, behean adierazitako betebeharrak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko du.

Parte hartzaileek Udalak emandako sari horietarako bete beharreko baldintzak: Ezin izango dute deialdietan parte hartu pertsona fisiko, juridiko edo entitateek, baldin eta horietako bakoitzean ezarritako parte hartzeko baldintza espezifikoak betetzen ez badituzte ezta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak jasotzeko ezarritako debeku-kausaren batean sartuta badaude. Era berean, parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ere bai, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritako moduan.

HAMARGARRENA.- Publizitatea

Lehiaketa honen ondorioz egiten den publizitate guztiak herriko Udalaren logotipoa jaso beharko du gutxienez, eta gomendagarria izango da Baturik eta gainerako erakunde laguntzaileena ere agertzea.

HAMAIKAGARRENA.- Obligazioak eta ez-betetzea

Establezimendu parte hartzaileek Udalak eskatzen dien informazio guztia emango diote, lehiaketa honen kanpainako antolatzaile den aldetik bete behar dituen eginkizunetarako eta lehiaketa honetan parte hartzea ahalbideratu dieten edozein baldintzetan unean-unean gertatu litezkeen aldaketen berri eman beharko diote.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta obligazioak ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekarriko du.

HAMABIGARRENA.- Datuen babesa

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak Pintxo lehiaketa egiteko datuak bilduko ditu tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko asmoz, Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Legea eta Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Parte-hartzaileen eta zozketetako irabazleen datu pertsonal identifikatiboak eta irudizkoak hirugarrenei komunikatu dakizkieke udalaren hedabide eta komunikabide elektronikoen bidez. Interesdunak datuok eskuratzeko, zuzentzeko eta kentzeko eskubidea du eta haien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko ere bai eta informazioa areagotzeko ere bai, Udalaren helbidera edo posta elektronikoa honetara idatziz dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org

HAMAHIRUGARRENA.- Interpretazioa

Antolatzaileek eskubide izango dute Oinarri hauek interpretatzeko zalantzak sortzen dituzten edozein egoeratan, eta haien erabakiak behin betikotzat hartuko dira.